

GARI
BERASALUZE

enarak itzuli dira





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GARI BERASALUZE

enarak itzuli dira

SERGE 'enarak itzuli dira' diskoa hemen entzun daiteke

– [Serge1975.bandcamp.com](https://serge1975.bandcamp.com)

Azaleko irudia: Haitz de Diego – haitzdediego.com

Azal barneko argazkia – Gorka Lasa – kipulastudio.eus

Maletarik gabe, iraganik gabe, ametsik gabe.

*Gaurko azken trenak utzi ditu geltokian,
eta berehala zabaldu dituzte linea berriak teilatuetara.*

Egunkariei ez zaie nabarmentzekoa iruditu,

baina hodeiek ebaki gehiago dituzte orain,

egunak errazago odolusten dira,

eta arramak agertu zaizkigu zapatetan.

Enarak itzuli dira.

Utzidazu zure ezpainetan habiak egiten.

AURKIBIDEA

ATARIKOA [arkeologia ariketak]

Esan zerbait

Ekaitzaren erdian

Botanika ikasgaia

Ispilu hautsien gainean

Medikuntza apunteak

Akuarela mingotsak (Itoitz eta Artozki gogoan)

Habiak ezpainetan

Konkistatu beharreko lurraldeak

Bossa Nova balkoietan

Elurra bezain isil

Musuak herrialde euritsuetan

Zalantza

Miss Ketamina

Amaitu gabeko puzzleak (Igor Angulo gogoan)

Hotz egiten du oraindik

Igande arratsaldeak

Hotel Revolución

Lasaitzeko mapa bat

Disko zaharretan bezala

Tranbiak larru gainean

Biharamuna

Isilpean idatzitako telegramak

Ahantzi ez nazazun

Mugarik gabeko udazkenak

Itsasoaren kolorea

Biluzik

Eguzki pusketak

Postalak

Bisita

Azaroan erbesteratuta

Sorburuak

Gernika esaten badut

ATARIKOA [arkeologia ariketak]

Arkeologiatik hurbil dagoen poema sorta da eskuetan duzuna. Sorta, besterik gabe, liburu edo bilduma izatera iritsi gabe. Indusketetan agertzen diren aztarnak bezala, noizbait bizirik egon zen norbaiten edo zerbaiten arrastoak dira. Blogari, fotolog eta historiaurreko beste garai batzuetan galdu ziren aspaldi, eta desagertutzat izan ditut urte askoan.

Larruz aldatzera kondenatutako sugeen an-tzera, batetik besterako bidean gauza asko galdu ditut, baina tarteka baita ezusteko atseginak izan ere. Sormenerako beka batera aurkeztu nituen behin poema batzuk, eta bekarik eman ez zidaten arren, aurkeztu behar zen proiektuaren azalpena eta lagin modura bidalitako hainbat poema azaldu zitzaizkidan egun batean, habiz aldatzeko liburuak, arropak eta gainerakoak batetik bestera mugitzen ari nintzenean. Bizpahiru kopia bidali behar ziren, eta bat gehiago egingo nuen, badaezpada.

Fotologek, blogek, disko gogorrek eta webguneek ez bezala, paperak iraun egiten du, oraingoz, eta badaezpadako kopia hari esker lagin modura bidalitako poemak berreskuratu ahal izan nituen behintzat, gainerako guztiak galdu baziren ere.

Garai hartan heldu zitzaidan Serge, Eraso! taldearekin zazpi disko plazaratu ostean, bakarkako lehen diskorako abesti guztien hitzak edo poemak nahi zituela esanez. Eguneroko zurrunbiloetan itota eta besterik sortzeko denborarik gabe, berreskuratu nuen poema sorta hura zen haurtzaroan eta nerabezaroan ikaskide izandako lagunari eman niezaiokeen bakarra.

Bizpahiru urtean isilpean lanean aritu ondoren, oraintsu bueltatu dizkit, Enarak itzuli dira izeneko diskoan bilduta. Opari ederra izan da. Hitzak askatasun osoz moldatu eta mutilatu dituenetz, ordea, diskoarekin batera, bertako zortzi abestien hitzak ez ezik lagunari eman nion poema sorta hura ere argitaratzea erabaki dugu, bere horretan.

Labera sartu aurretik, urteek eta distantziak emandako betaurrekoekin irakurrita, edukiari eta estiloari dagokionez zalantzak izan ditut. Handiak. Baina aurrera egitea erabaki dugu azkenean, beste bizitza eta garai batzuetako aztarnak direlakoan, indusketa bateko hezurkinen antzera. Inork arkeologia ariketak egin nahi baditu ere.

2019ko otsailaren 26an

Ez dakit orduko nor naizen orain,
harengandik ezer gelditzen bada oraindik.

Badakit, ordea,
gaur izango zinatekeen oso bestelako bat
geratu zela iraganean,
beti aterpe emango dizuna
egongo ez garen lekuetan.

Esti Martinez Diaz de Cerio,
Azalberritze bat (2018).

Esan zerbait

Esan ez dugula inoiz
trenik bidali elkarren bihotzetara.
Esan zein basamortutan
bildu zenituen begi arabiar horiek.
Esan kurloirik
pausatzen ote den garai hauetan.
Esan zergatik
egin zenidan irribarre gau hartan.
Esan maleta hutsekin
aurkitu ninduzula noizbait,
hotzegiak direla gutunak
eta urrunegi ditugula lagunak.
Esan ispiluan ageri diren malko horiek
ez direla gureak,
ametsen kontrabandoan
aritzen garela oraindik
eta faroak piztuta ikusten direla ilunabarrean.
Esan lehengoak garela gaur ere.
Parisen Bartzelonan Amsterdamen Habanan
idatzitako postalak ez direla herdoildu sikiera,
bihar Cabo Verden ikusiko zaitudala
edota oinutsik eseriko garela teilatuetan.

Esan zerbait,
harea zainetan barrena zabaltzen denean
urtarorik umelena bihurtzen baita isiltasuna.

Ekaitzaren erdian

Batzuetan faroari begira geratzen naiz gauetan.

Gaur bezala bihotza lehortzen zaidan egunetan
ezin dut besterik egin.

Odolik gabe geratu diren zainei begiratu
eta ezagutzen ez ditudan arrama antzu hauetara
malkoak zabaldu erabat ihartu ez daitezen.

Badakit egunen batean loratuko dela zerbait
erori naizen zelai guztietan.

Badakit erraiak oihuka hasten direnean
ezin dela erretenetan datorren itsasgora gelditu,
baina batzuetan

faroari begira geratzen naiz gauetan,
noizbait zure begiak dituen kontinenteren bat
erakutsiko didalakoan.

Botanika ikasgaia

Naturaren mintzoa da,

askatasunaren balada botanikoa:

hainbeste mimorekin zaindu

ureztatu eta maite izan duzun loreak

nahiago du kanpoko euria.

Ispilu hautsien gainean

Ispilu hautsien gainean errari ibilitako erromesak
izan gara noizbait.

Kristal zatiak ditugu biriketan,
baina ikasi dugu amarrak askatzen,
eta memorian ubeldutako uberak
aingura herdoilduak
besterik ez dira dagoeneko.

Hotz egiten du oraindik,
baina eguzkia atera da.

Argia amatatu eta leihoak zabaltzeko garaia da.
Sugandilak ere atera dira epeltasun bila,
eta trenbidearen beste aldean
zain ditugu goldatu beharreko lurrak.

Begira zenbat hondar ekarri duen itsasoak
hurrengo itsasbeheran bion izenak idazteko.

Medikuntza apunteak

Behin batean udazkena,
eta gaua mendeetan zehar.
Isiltasuna atertu gabe orbainetan,
herdoilak hartutako fabrika zaharrak,
eta iluntasuna besterik ez
larrua aldatzera behartutako
sugeen begietan.

Abandonatutako geltokiak izan gara noizbait,
behinola eguzkitan egon eta gero
sustraien albora eroritako hosto lehorrak,
inork begiratzen ez duen argazki zaharra,
malkoei atsedean emateko ere
lurrik ez duen herria,
falta zarenetik
lanbroak arratsero idatzitako biografia.

Medikuntza apunteetan ere ikas daiteke.

Bizitza gordinagoa da
bihotza josteko makinatik pasatu ondoren.

Akuarela mingotsak (Itoitz eta Artozki gogoan)

Goazen beste teilatu batzuetara.

Eguraldia ere aldatu da,

antzarek lurralde urrunetara egin dute,

eta hutsik geratu dira postontziak.

Iritsi da hemendik ihes egiteko ordua.

Nekatu zaizkigu begiak

akuarela mingotsei kolorea emateaz,

eta gero eta aterki gehiago ageri da

ilunabarrei ateratako erradiografietan.

Ezin ditugu orbanak ezkatekin estali.

Ez dugu harri artean igeri egiten asmatuko.

Goazen beste teilatu batzuetara.

Laster eraitsiko dituzte zubiak,

eta uda babesleku sargoriekin helduko den arren,

hemen, dagoeneko,

biziketak ere antigualeko hitzak izango dira.

Habiak ezpainetan

Enarak itzuli dira.

Maletarik gabe, iraganik gabe, ametsik gabe.

Gaurko azken trenak utzi ditu geltokian,
eta berehala zabaldu dituzte linea berriak teilatuetara.

Egunkariei ez zaie nabarmentzekoa iruditu,

baina hodeiek ebaki gehiago dituzte orain,

egunak errazago odolusten dira,

eta arramak agertu zaizkigu zapatetan.

Enarak itzuli dira.

Utzidazu zure ezpainetan habiak egiten.

Konkistatu beharreko lurraldeak

Aspaldi erroldatu ginen zalantzaren erresuman

eta ordudanik apalagoak dira egunak,

udazkenaren kolorea dute urtaro guztiek

eta sarerik gabe aritzen gara trapezioan.

Bizitzari autopsia egin

eta herdoila aurkitu ziguten bihotzetan,

orain ez gara hain inozoak,

malko gehiago kontaktzen ditugu

inbentarioa egiten dugun bakoitzean,

baina hala ere tranbia koloretsuak dira ametsak.

Garaipena gehiago gozatzen duten gerlariak gara

musuak egunero konkistatu beharreko lurraldeak direnetik.

Bossa Nova balkoietan

Bazter auzo honetara aldatu ginen udazkenean,
alokairua merkeagoa delako hemen,
eta etxea apur bat eguzkitsuagoa.
Hala ere, ez genuen kalkulatu
lehortzera esekitako koloreak eta tirantedun elastikoak,
eguneroko bossa nova salsa samba eta kumbia festak,
bizilagunaren sabel dantza ikastaroak
eta balkoian erre ohi zituen zigarroak galduko genituenik.

Hilaren amaierara errazago iristen gara orain,
baina faltan sumatzen dut leihotik begiratu
eta Brasilgo turismo bulegoa zabalik ikustea.

Elurra bezain isil

Elurra bezain isil

izarak zabaldu

eta zuhaitz izan nahi dut

izterrak ezpain

bihurtzen zaizkizun

itsaso horretan.

Musuak herrialde euritsuetan

Ilargia bezala erori nahi dut zure begietan
eraman nazazu berriro taberna ilunetara
eskutik hartu eta sagar heldu berrien bila

lehertu ditzagun olatu basatienak ezkutuan
goazen herrialde euritsuetan jolastera
eta tentazioaren bidean ibiliko gara erromes
kalamuaren kaligrafiarekin putzuak eginez

lanbroa besterik ez da ageri bazterretan
baina bildutako musuekin nahikoa dut gaur

zure ezpainak dira aberririk gorriena.

Zalantza

Benetako besarkadak

eta bihotzean sortutako

zelaia garen

ala hutsuneak betetzeko

eskulturak

besterik ez.

Hori da galdera.

Miss Ketamina

Azken portuan aurkitu zaitut gaur

eta ezin izan diot zure irribarreari ihes egin.

Ketaminari, speedari eta kokainari lotuta bizi zarela,

nire begiak zeharo putakumeak direla

eta hemeretzi urte izan arren

laster hilko zarela esan didazu.

Infernua ezagutu duzula dagoeneko,

duintasuna gramoka saldu zenuela aspaldi

taupada zurien ordainetan,

eta azken hiru hilabeteotan hilekorik ez zaizula iritsi.

Ezaba dezaket zure musuen zaporea ezpainetatik,

kendu dezaket zure geografia

oroimenaren mapetatik,

baina ez eskatu gau hauetan entzundakoa ahazteko.

Gordinegia da bizitza

nire bihotzean inoiz sartu den

doctor deseoren abesti samurrena

musikarik gabe uzteko.

Amaitu gabeko puzzleak (Igor Angulo gogoan)

Bihar ere aterako ditugu izarak patioan lehertzera
Kafearen taupadekin berotuko dugu egunsentia
eta leihotik begiratuko diogu
aspaldian ateri dagoen herriari.

Nonbait, ordea, kresala zintzilik agertuko da
ziega urrun batean
autopsia egingo diote itsasoari
eta hildakoak agurtzera itzuliko gara portura.

Ikasiko dugu zapatak lotzen,
norbait malkoak lehertzera aterako da
eta zure izena idatziko dugu kantoietan.

Amaitu gabeko puzzleak geratuko zaizkigu esku artean,
ez da pieza gehiago iritsiko gutunetan,
baina legoa asko idatziko ditugu oraindik.

Bihar ere izango dugu lekurik bandera berriak zabaltzeko.

Hotz egiten du oraindik

Krabelin gorri bat zabaldu nahiko nuke gaur leihoan
hildakoen izenak eman itsasoari
eta amantarekin lehortu azken malkoak.

Eguzkia atera da, baina hotz egiten du oraindik.

Keak hartu ditu neguaren taupadak,
eta betiko kasernetara itzuli dira marinelak.
Ez eskatu meniarik gure minari.

Kendu amuak zuhaitzetatik.

Aspaldi abandonatu behar izan genituen habiak,
eta ez gaituzte euriari begira aurkituko.

Krabelin gori bat zabaldu nahiko nuke leihoan.
Baina lehortutako lurra besterik ez dugu gaur patriketan.

Igande arratsaldeak

Zer diren igande arratsaldeak zure bisitarik gabe,
zer ezkututzen duten eman gabeko musuek,
zergatik ibiltzen garen bizikleta urdinetan,
zein itsasotan ote dabiltzan marinel zaharrak,
zergatik gustatzen zaizkigun enarak,
zer diren mareak latitude hotz horietan,
zertarako giltzapetzen dituzten parkeak gauean,
zertan aldatu garen azken urteotan,
zerbait ekarriko duen haizeak hegoaldetik,
zein amets dituzten portura itzultzen ez direnek,
zer ikusten den zure leihotik,
zenbat gutun gehiago idatzi behar dizkizudan.

Zergatik den ilunagoa gaua egunsentia baino lehen.

Hotel Revolución

tabako ron eta kanelaz

sukartutako ametsetan

malekoira begira larrutan egiteko

erabiltzen dugun hotel zaharkitua

besterik ez da dagoeneko

iraultza.

Lasaitzeko mapa bat

Lasaitzeko mapa bat

erakutsi nahi dizut gaurko hitzekin.

Gorde malkoak egutegiak ospelagoak direnerako.

Ahaztu berokirik gabe hotzeziak diren hiriak.

Lehen ere badakigu elurtutako kaleetan bidea egiten.

Nahi duenean azaltzen den

amorante ankerra besterik ez da langabezia,

baina ez kezkatu,

sasoia heltzean beti urmeltzen da negua.

Begira, postal eguzkitsu bat idatziko dizut gaur.

Oraindik badugu ogia erosteko

eta gasa ordaintzeko adina,

eta farola nahikoa ere bai

malekoian elkarrekin ibiltzeko.

Ez gara galduko zenbaki gorrien geografian.

Errenta sakonago batean

kotizatzen dute gure musuek.

Goazen izter arteko zelaietan marrubiak biltzera,

gelditu dezagun denbora hurrengo fakturak iritsi arte,

eta hilaren amaieran

poema sorta bidaliko dugu bankura.

Idatziz erantzun dezatela

hipoteka ordaintzeko ez dutela balio.

Disko zaharretan bezala

hil naizen bakoitzean

euria egin du

disko zaharretan bezala

baina atertzen duenean

gorriagoak dira teilatuak

kolore gehiago du bizitzak

eta zurea bezalako ostadarrak

agertzen zaizkit begietan

itsasoa ez da inoiz gelditzen

beti dago olatu eder bat

noizbait berriro aterkiak zabaltzeko.

Tranbiak larru gainean

herrialde berrietara arribatu gara
maletetan gordetako lanbroa ostendu
eta eskuak larruaren atelierretatik
igarotzen diren tranbiak bihurtu direnetik

amaitu dira
itsaso beltzetan egindako bidaiak
eguzkitan etzanda igaroko ditugu hilabeteak
eta kale sargori hauetan
libre ibiltzen utziko diogu elkarri

baina zure bihotzean erroldatzeko
paperak bete behar ditut
izarak aldatu aurretik.

Biharamuna

Esnatu ginenean

Hipoteka oraindik han zegoen.

Isilpean idatzitako telegramak

Egin ditzagun kartografia ariketak.

Nonbait bada ametsen errepublika bat.

Haizea aldatzen hasi da,

eta isilpean idatzitako telegramak

bidali behar ditugu eguna argitu baino lehen.

Beste gau bat zeharkatu nahi dut zurekin,

maitale ezpain hauetan,

baina garai hauetan gure musuak ere

legez kanpokoak izango dira beharbada.

Ahantzi ez nazazun

Sortaldera eguzkiaren bila ateratako brigada hura
gaur itzuli da, izerdi usainaren bidean,
zuk bustitako maindireak banderatzat hartuta.

Batzuetan lurralde okupatua da desira,
baina mugarri zailduak gara honezkero.

Kondenatu nazazu berriro zure bekatuetara,
zabaldu kometak gau haizetara, eta ez esan ezer.

Hitz egingo dugu bihar goizean, kafesnearekin.

Orain, abesti zahar baten babesarekin biluztuko zaitut,
ahantzi ez nazazun, bolero hartan bezala.

Mugarik gabeko udazkenak

Mugarik gabeko udazkenak izango gara beti,
biharko marrubi zelaien esperantzan.
Ezkutuan lehortuko ditugu izarak,
dei galduen bilduna izango da gure biografia
eta euria besterik ez zaigu geratuko ezpainetan.

Hala ere oheak itsaso bihurtuko ditugu berriro,
eta mareak gaua eraman baino lehen
bidaliko ditugu mezulariak, zaldi basatiekin.

Hire begiak nire alabarentzat, esaterako.

Itsasoaren kolorea

Gure musuen nazioarteko eguna izango da gaur.

Azken telegrama eta taupadetan

lehertu diren hitzak bildu

eta goazen malekoira postalak idaztera.

Itsasoaren kolorea eman nahi diet zure ezpainei.

Biluzik

Hosto denak erantzi eta biluzik utzi gaitu udazkenak.

Hondoratutako itsasontzien paisaia dirudi

batzuetan munduak gure leihotik begiratzuz gero.

Behelainoa ere agertu da berriro,

erortzen eta odolusten garen guztietan bezala,

haizeak gaur ere zure aldetik jotzen duen arren

orduko ez dakit zenbat taupadako bolada indartsuetan.

Aintzira urrunetara ihes egindako hegaztiak gara orain.

Hosto denak erantzi eta biluzik utzi gaitu udazkenak,

baina pagoen denbora guztia dugu

urtaro berriak asmatu eta mila koloretan lehertzeko.

Eguzki pusketak

Euriak lekuz aldatutako
itsaso pusketak dira putzuak

tangoen hitzak
bidali gabeko gutunak
apirila managuan
edota marrubiak ezpainetan bezala

gauak zure begietan amaitzen direnetik

bizitzak kolorez aldatutako
eguzki pusketak dira musuak.

Postalak

Zurekin besarkatu ditudan hirien
postalak biltzen baditut,
ez da nostalgia izeneko hotel batean
gauak pianoaren ondoan igarotzeko.

Noizbait
zure larruaren kolorea izan duten
lekuei begira esnatzeko baizik.

Bisita

hemen amaitzen da kilometroen bilduma.

honaino heltzen dira errepideak.

karnetak eman guardia zibilei.

harresiak. aparkalekua. kartzela.

karnetak eman funtzionarioei.

metalak irakurtzen dituen uztaia dugu zain.

badugu zerbait.

utzi eraztuna, giltzak, gerrikoa...

berriro ere bai.

ea ez dugun besterik,

eta eskuz miatu gaituzte, zehatz.

baina uztaiak temati segitzen du, asaldatuta.

ez dute ulertzen.

herdoildu dizkiguten ametsak dira.

Azaroan erbesteratuta

Azaroan erbesteratuta

dabil gaur ere hego haizea.

Uso mezulariak bihurtu ditu hostoak,
kaleak koloretako gutunekin hartuta,
eta zure hitzak ekarri dizkit leihoraino.

Sutan dagoen basoa

izango da laster ilunabarra.

Noizbait izan gaitzkeenaren memoria

idatziko du keak ohera iristen denean,
eta oraingoan ezingo ditugu ezabatu
bisitarik gabe geratutako musu guztiak.

Berriro ere

zure ondotik aldendu behar badut,
sukaldetik trufa izoztuekin
itzultzeko soilik izan dadila.

Sorburuak

egun haietan ez zekiten oraindik

baina aurreko bizitzetan hasi ziren
bien ametsak besarkatzen,
batek eguzkia eta besteak sugandila beltza
tatuatu zutenean.

elkarrentzat lehen aldiz biluztu ginenean
ulertu genuen
egun haietan hasi zela euritan
gaur eskuetan dugun erreka.

Gernika esaten badut

gernika esaten badut
lanbroa ageri da
sagarrondorik gabe
geratutako historia liburuetan.

gernika abesten badut
maite ditudan bazterrak
betetzen dituzte hildakoen izenek
oraindik galdu gabe dagoen toponimian.

gernika ikusten badut
lapurtutako koadro bat dago
munduari begira
hemengoa ez den museo batean.

gernika oroitzen badut
zure ezpainak dira
itzaltzen ez den suak hartuta.

gernika idazten badut
dornier, junker edo heinkel
bezalako hitzekin
harriz betetako basamortua
zabaltzen da azoka egunetan.

gernika esaten badut gernika
abesten badut gernika ikusten
badut gernika oroitzen badut
gernika idazten badut

errautsetatik koloreak bildu dituen
herri bat erakusten ari naiz
munduko gernika guztiekin batera
[sarajevo, bagdad, gaza, donbass, kobane...]
koadroa noiz amaituko den galdezka.